

VIENTOS MUY FUERTES. 9 DE SEPTIEMBRE.

Durante el día 9 se registraron vientos muy fuertes, con rachas de más 100 km/h en diversos lugares de la CAPV, destacando Zarautz 111,6 km/h, Punta Galea con 104,4 km/h y Jaizkibel con 105,1 km/h (ver tabla 9.1).

La situación de vientos muy fuertes fue debida al paso de una depresión sobre el Cantábrico y su posterior posicionamiento sobre Francia, que junto al anticiclón de las Azores formaron un pasillo de vientos del nor-noroeste, con un gradiente de presión intenso sobre todo el Cantábrico y en particular sobre Euskal Herria.

Los vientos fueron particularmente intensos en la costa y en zonas expuestas, debido principalmente a un estrechamiento de las isobaras sobre parte del Cantábrico oriental y en menor medida a la dirección del viento (ver figuras 9.1 a 9.3).

En las estaciones de montaña los vientos fueron fuertes, pero no muy destacables, sobre todo en las zonas interiores.

Destacar también las precipitaciones, que fueron localmente fuertes la tarde del día 8 y mañana del día 9, con 25 mm/h en Derio la mañana del día 9.

Tabla 9.1. Tabla de velocidad media y racha máxima de viento el 9/09/2003.

Estación	Racha máx. (km/h)	Vmed (km/h)
Jaizkibel	105,1	47,5
Zarautz	111,1	40,5
Bermeo	101,2	32,2
Cerroja	103,7	39,1
Oiz	109,4	51,2
Punta Galea	104,4	50,4

HAIZE OSO GOGORRA. IRAILAREN 9AN.

Irailaren 9an haize oso gogorra ibili zen, Euskal Herriko hainbat tokitan 100 km/h-ko abiadura gaindituz. Aipatzekoak dira Zarautz 111,6 km/h-ko abiadurarekin, Galea 104,4 km/h-koarekin eta Jaizkibel 105,1 km/h-koarekin (ikus 9.1 taula).

Kantauri Itsasoa zeharkatu eta Frantzian kokatutako depresioak alde batetik, eta Azoreetako antizikloiak bestetik, ipar/ipar-mendebaldeko haizearentzako presio-gradiente handiko pasabide aproposa eratu zuten Kantaurialdean eta bereziki Euskal Herrian.

Haizearen norabidea zela medio, kostaldean eta inguru zabaletan izan zen bereziki gogorra, baina batez ere Kantaurialdearen ekialdean isobaren estutzeagatik (ikus 9.1, 9.2 eta 9.3 irudiak). Mendi inguruetako estazioetan haizeak gogor jo zuen, baina ez nabarmenki gogor, batez ere barnealdean.

Azpimarratzekoak dira hilaren 8an arratsaldez eta 9an goizez zenbait tokitan egindako euri gogorra. 9an Derion adibidez 25 mm/h jaso ziren.

9.1 taula. 8 eta 9 bitarteko haize-bolada maximoaren abiadura eta haizearen batez besteko abiadura.

Estazioa	Haize-bolada max abiadura (km/h)	B/B abiadura (km/h)
Jaizkibel	105,1	47,5
Zarautz	111,1	40,5
Bermeo	101,2	32,2
Cerroja	103,7	39,1
Oiz	109,4	51,2
Punta Galea	104,4	50,4




Figura 9.1. Presión a nivel del mar y frentes el 9/09/2003 a las 12 UTC.
9.1 irudia. Presioa itsas mailan eta fronteak 2003/09/9 UTC 12etan.




Figura 9.2. Geopotencial e isotermas a 850 hPa el 9/09/2003 a las 12 UTC.
9.2 irudia. Geopotentziala eta isotermak 850 hPa-era, 2003/09/9 UTC 12etan.




Figura 9.3. Geopotencial e isotermas a 500 hPa el 9/09/2003 a las 12 UTC.
9.3 irudia. Geopotentziala eta isotermak 500 hPa-era, 2003/09/9 UTC 12etan.